

Gure negozio-ideiak funtzionatzeko, hainbat jarduera egin behar ditugu. Lehenengo pausoa, liburuak eskuratzea da. Horretarako, elkarrekin edo beste enpresa batekin tratua lortu behar dugu haien liburuak alokatzeko, horrela, ez dugu diru kantitate oso handi bat gastatu behar eta diru galerak aurreztu ditzakegu. Liburuak alokatzean, diru asko aurreztu egiten dugu eta gainera, bakarrik benefizioak lortuko ditugu. Enpresa horrekin tratua lortzean, ikasleei aurrekontu bat aurkeztu egingo diegu. Aurrekontu hau, enpresarekin lortutako aurrekontua baino apur bat altuagoa da gu benefizioak lortzeko eta bestelako gastuak ordaintzeko. Horrela, lehen esan dugun bezala, bakarrik benefizioak lortuko ditugu eta galerarik ez.